

NAFARROAKO GOBERNUKO ADMINISTRAZIOAN

USTELKERIA ZURIAREN

LIBURU BELTZA

dosier  
-----  
ustelkeria



**FORU ADMINISTRAZIOAREN  
ERREFORMA DEMOKRATIKOAREN ALDE!**





Liburuxka honek nafar administrazioan  
hedatutako ustelkeria “zuria” aztertu  
eta interes ekonomiko mamitsuak  
dituen funtzionario sarearen berri  
ematen du.

Euren buruari onartutako soldata  
eta dirulaguntza publikoetatik  
gero eta gehiago bizi diren alderdi  
politikoek sustatzen duten  
fenomenoa da hori.

Dossier honetan azaltzen diren  
datu eta berriek harri eta zur  
utziko zaituzte ziurrenik.  
Sinestezina badirudi ere,  
sinetsi ezazu:

egia borobila da.

Dossier hau “creative commons” en lizentziapean editatua da, beraz, edozein formatu  
edo edozein komunikabetan zabaldu daiteke baldin eta bere iturburua aipatzen den:  
“Nafarroako Gobernuko Administrazioan ustelkeria zuriaren liburu beltza”  
LAB sindikatua 2008



NAFARROAKO GOBERNUKO ADMINISTRAZIOAN

USTELKERIA ZURIAREN

LIBURU BELTZA

dosier  
-----  
ustelkeria

**FORU ADMINISTRAZIOAREN  
ERREFORMA DEMOKRATIKOAREN ALDE!**

**LAB**

**IRUÑEA**  
tel 948.22 11 30

**Martelo Zelaieta 75- 2A atea-  
22 bulegoa**

**[irunea@labsindikatua.org](mailto:irunea@labsindikatua.org)  
[www.labsindikatua.org](http://www.labsindikatua.org)**

dosier  
-----  
ustelkeria

**FORU ADMINISTRAZIOAREN  
ERREFORMA DEMOKRATIKOAREN ALDE!**



# NAFARROAKO GOBERNUKO ADMINISTRAZIOAN USTELKERIA ZURIAREN LIBURU BELTZA

Lan honek ez ditu bere baitan hartu nahi Nafarroako Gobernuaren Administrazioan, tamalez, oso ohikoak diren irregulartasun eta ustelkeria guztiak. Pena handiz, gure azterketatik kanpo geldituko dira milioi askotako kontratazio horiek guztiak (Itoitz, Nafarroako Ubidea, Bidearen Autobia), zeinen azken gastuak, askotan, hasierako aurrekontua bikoizten duen, hortik eratortzen diren zilegizko susmo guztiekin. Ez ditugu aipatuko, ezta ere, alderdikeriaren eta pertsonen interes ilunen aldera desbideraturiko subentzioekin loturiko eskandalu horiek guztiak (Ricardo de Leon, Humanismo y Democracia...). Azkenik, sektore askok "benetako hirigintza pelotazotzat" jo izan duten Gendulaingo proiektua ere lan honetatik kanpo geldituko da. Nolanahi ere, etorkizun hurbilean gai hauei guztiei ekitea espero dugu.

Anartean, gure eguneroko praktika sindikaletik hurbilago dagoen errealitatea aztertuko dugu. Honela, Administrazioaren jardueran egonkortuz doazen ustelkeria gero eta handiagoak eta funtzionario sarearen eratze paraleloa, eremu honetan interes propioak dituen, aztertuko ditugu. Horretarako, hiru gai aztertuko ditugu nagusiki. Lehena, Nafarroako Gobernuko Administrazioko egitura hierarkiko-burokratikoari dagokio. Bigarrena, zerbitzu publikoak gero eta gehiago pribatizatuz desegiten ari den funtzio publikoari dagokio, eta horretan enpresa publikoen sare opako eta nahaspilatuak duen eginkizuna. Azkenik, bi fenomeno hauen artean dagoen lotura aztertuko dugu; hau da, batetik unean uneko gobernuari eta, bestetik, enpresa pribatuari loturik dagoen hierarkia politiko-burokratiko horrek pribatizazioak bultzatzeko dituen interesak argitzen saiatuko gara.

Ondorio hauetarako, zoritxarrez, **gutxi -edo deus ez- da Foru Administrazioan azken hogeita hamar urteotan aurreratu dena.** 1978. urtea zen eta Amadeo Marco zen erregea Diputazio franko-foralean. Honetako azken diputatuek bakoitzari zegokion "entxufe kupoa" banatzeari ekin zioten. Orduko ohi-tura zen. Diputatu bakoitzak pertsona talde bat hatzaren bidez Diputazioan sartzeko "eskubidea" zuen (beren herriko jendea, lagunak, familiakoak...), zeuden hutsuneak betetzeko. Bada, azken Diputazio frankistak lehenengo foru hauetaskunde "demokratikoak" helduko zirela ikusi zuenean, 1979an, azken kupoa sartuak ziren pertsona guztiak finko egin zituen, eta hau, arrazoi osoz, ezkerreko alderdi demokratiko guztiek fermuki salatu zuten.

Alabaina, hauteskunde horien ondoren, demokraziak bāzterturik segitu zuen Administrazioan. Nafarroako Gobernuan dagoen alderdia dagoela ere (PSN, UPN, TRIPARTITOA) oso gauza berdintsua gertatzen da Administrazioan: hatzez izendaturiko ehundaka burutza; zerbitzu eginkizun iruzurrezkoak; enpresa publikoetako administrazio kontseilu eta zuzendaritza batzordeetan kokaturiko beste ehundaka alderdikide, entxufatu eta goranahi, eta abar.. **Konklusio tristea hauxe da: demokrazia oraindik ez da sartu Foru Administrazioan<sup>1</sup>.**

Nafarroako Gobernuko Administrazioaren "liburu beltz" honetan aurreko guztia aztertu nahi dugu, Diputazio saildian adiskidekeria, ustelkeria eta burokratismoa egonkortzen dituzten mekanismoak argituz. Edozein kasutan, gure lanak ez du salaketa hutsean gelditu nahi. Etorkizun hurbilean "liburu gorri" bat argitaratzeko konpromisoa hartzen dugu gaurtik. Bertan, nafar herritarren zerbitzurako izanen den Administrazioa, irekia eta parte hartzailea, zerbitzu eta atentzio publikoen bultzatzaile izanen dena eta, aldi berean, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuan jarduten dugun guztion lana garbitua, aitortua eta duin bihurtu duen Administrazio guztiz demokratikoa erakitzeke proposamen baikorrek planteatuko ditugu.



# **aurkibidea**

- 1 NAFARROAKO GOBERNUAREN EGITURA ADMINISTRATIBOAREN  
AZTERKETA .-1
- 2 ZERBITZU PUBLIKOEN PRIBATIZAZIO POLITIKA: EXTERNALIZAZIOA,  
EMAKIDAK, ENPRESA PUBLIKOAK...-8
- 3 ZERBITZU PRIBATIZAZIOA ENPRESA PUBLIKOEN SORRERAREN BIDEZ .-12
- 4 ZERBITZU PUBLIKOEN PRIBATIZAZIOAREN ONDORIOAK .-16
- 5 NAFARROAKO GOBERNUAREN ENPRESA PUBLIKOETAKO  
ZUZENDARITZA EGITURA ETA HAIEN PLANTILAK .-18
- 6 BESTELAKO PREBENDAK: KARGUA UTZI ONDOKO ORDAINSARIEK  
ETA BESTELAKO SOLDATA-OSAGARRIEK JOERA PRIBATIZATZAILEAK  
INDARTZEN DITUZTE .-24
- 7 FORU ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMA  
DEMOKRATIKOAREN ALDE .-26



## 1.-NAFARROAKO GOBERNUAREN EGITURA ADMINISTRATIBOAREN AZTERKETA.

### 1.1.-Plantila organikoak eta burutzak.

2007. urtean LABek<sup>2</sup> egindako lan batean, Nafarroako Gobernuaren Departamentuetako<sup>3</sup> oinarrizko egitura osatzen duten lau mila lanpostu baino gehiago ikertu dira. Honetatik hurrengo ondorioak azpimarratuko ditugu:

Aztertutako plantilatik (4169 lanpostu) 901 lanpostu burutzei dagozkie (Bulego eta Ataleko burutzak; Zerbitzu Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Nagusiak). Aurrekoari Zerbitzu batzuetan (Ongizateko asistentzia zentroak, Ingurumen Departamentuko mendizainak...) beste burutza ezberdinak badaudela gehitzen bazaio, **lau langiletako batek burutza edo zuzendaritza bat duela ondorioztatu daiteke.**

Aurrekotik eratorritzen den batez besteko organigrama honako hau litzateke: **zuzendari nagusi bakoitzeko zerbitzu zuzendari bi baino gehixeago, zortzi Atal Burutza eta bederatzi Bulegoko burutza daude.**

Hainbat departamentutan aurreko portzentajeak gehiago handitzen dira oraindik ere. Horrela, Industria, Merkataritza eta Lan Departamentuan burutza portzentajea %39,56koa da, Toki Administrazioak %36,29 du. Hau are larriagoa da Zuzendaritza Nagusi (Industria: %43,42...) eta Zerbitzu batzuetan (Kalitate eta Modernizazioa -Toki Administrazioan-: %80, Kolokazioa -Industrian-: %62,5...).

Modu eskandalagarrian zera konprobatu daiteke: **Atal Burutzetako 55ek eta Bulegoko 252k ez dutela bere mende inor jefea baino.** Eta hori nahiz eta legeak dioen Atalei "beraiekiko dependentzia duten bulego edo unitateek egiten dituzten aktibitateen koordinazioa, zuzendaritza eta kontrola" dagokiela. Nola esplikatuz, bada, Atal hauetako 55ek Bulegorik, unitaterik edo pertsona bat bera ere ez izatea koordinatu, zuzendu edo kontrolatzeko?

Aurrekotik eratorritzen den konklusio nagusia da **Nafarroako Gobernuaren egitura administratiboaren barruan burutza eta kargu hipertrofia justifikaezina dagoela.** Horrek ekartzen du funtzionamendu burokratizatua, administrazioaren jarduna sostengatu behar duten azkartasuna, efikazia eta eraginkortasuna printzipioen kaltetan: espedienteak amaierarik gabeko tarteko mailetatik pasatuz doaz, berandu-

Frankoren ondoren, entxufismoaren ohi-tura, desagertu beharrean, gobernatzeko duena gobernatzeko duela, handitzen joan da gobernu ezberdinekin.

tzen dira eta beren tramitazioa korapilatzen da. Modu paraleloan, badago jefe asko pentsatzen, bidaiatzen, biltzen, ikastaroak egiten, planifikatzen, ikuskatzen, informatzen... oinezko langileak eguneroko lana aurrera ateratzen duen bitartean.

Antolakuntza bidegabekeria hau justifikatzen duen arrazoi nagusia **Comptos Ganberak**<sup>4</sup> nabarmendu zuen bere egunean, azpimarratuz **“egitura administratiboa -burutzak- antolakuntza hobetzeko ez, baizik eta helburu erretributibo hutsekin erabiltzen dela** burutza berriak sortzearen bidez”. Hau da, organigrama hierarkikoa arrazionaltasun eta funtzionaltasun irizpideen menpe egon beharrean, prebenda eta ordainsari osagarriak emate politika bidegabeari erantzuten dio: %10 Bulego Burutzentzat; %20 Atalekoentzat; %40 Zerbitzu Zuzendaritzentzat... Horrela modu berezian ordaintzen zaie pertsona hauei guztiei, aplikatu behar den araudia eta sinaturiko lan hitzarmenetan bildutakoa baztertuz.

Bide honetan emandako azken urratsa Zerbitzu zuzendariak negoziazio sindikalarren markotik ateratzea izan da, 2007. urtera arte horren menpe egon diren arren. Izan ere, 2008rako Aurrekontuei buruzko Foru Legeak zuzenean finkatu du horien soldata (urteko 51.956,10 euro, gradu, antzinasuna eta familia laguntza kopuruan sartu gabe) edozein lan hitzarmenetatik kanpo. Modu honetan, pertsonal guztiarentzat soldata igoera %2koa izan zen bitartean (KPIren aurreikuspena %5ekoa izanda), Zerbitzu zuzendariak igoera garrantzitsuak lortu zituzten, kasu batzuetan urteko 24.000 euroak gainditu zituztenak.

Noski, **egitura hierarkiko hipertrofiatu honen murrizpenak eta ondoriozko sinplifikazioak oso eragin positibo izanen lukete Administrazioaren funtzionamendu orokorrean.** Horrekin ezabatuko lirarteke, alde batetik, behar ez diren eta askotan bakarrik administrazio funtzionamendua zailtzeko, oztopatzeko eta moteltzeko balio duten maila hierarkikoak eta, bestetik, benetako ekoizpen prozesura gehituko lirarteke gaur egun nahiko jardun maila baxu eta eraginik gabekoa duten (pentsatu eta bildu askotan egiten dute, baina lana dezente gutxiago) ehundaka pertsona.

Beste alde batetik, sindikatu honek<sup>5</sup> kalkulatu duen moduan **egun dauden (901) burutzen erdiak (450) ezabatuko balira eta osagarrien murrizpen horri dagokion diru kopurua (281.750 €/hilabete) Administrazioiko maila baxuenera (E, D eta C) langile guztien artean banatuko balitz, 64,09 €/hilabete igoera linealerako emanen luke.** Berau, ez litzateke batere gaizki, bide batez esanda.



## 1.2.-Handituz doan burokratizatorako joera.

2000. urtean, gure sindikatuak, LAB-ek, "Burutzak Nafarroako Gobernuan" izeneko antzeko ikerketa egin zuen. Honetan, 1996ko abenduaren 31ri eta 1999ko abenduaren 31ri zegozkion plantilak alderatu eta gero, iraganiko hiru urte soil horietan, burutzen igoera %28,93koa izan zela ikusten zen. Aurrerago, 2005eko urrian antzeko ikerketa argitaratu zenean, Burutza kopurua handitzeko joera hau mantentzen zela konprobatu zen. Honetatik guztitik, **azkenik 1996ko abenduaren 31n eta 2004ko abenduaren 31n zeuden Burutza kopuruak alderatu eta gero, zortzi urte hauetan areagotze osoaren portzentaia %40ra hurbiltzen zela** ateratzen zen.

Antzeko beste ikerketa batean, honetan Comptos Ganberak<sup>6</sup> egina eta Nafarroako Gobernuaren Administrazio osoari zegokiona (ez soilik Administrazioari *sensu strictu*, baizik eta Hezkuntza eta Osasunbidea barne hartzen zituena) antzeko konklusioetara heldu zen. Honela, harturiko denbora tartean, oinarritzko lanpostuen handitzea %17koa izen zen bitartean, burutzena %57 handitu zen.

Adibide hurbilago eta zehatzago jarriz, Hezkuntza Departamentuan azken lau urteotan gertatu dena aztertzea interesgarri suertatzen da.

2003ko udan, foru hauteskundeak eta gero, Hezkuntza eta Kultura Departamentu zaharra zatibitzea erabaki zuen Gobernuak, bi departamentu sortuz: Hezkuntza, alde batetik, eta Kultura, bestetik. Printzipioz, eragozteko deusik ez. Gertatzen dena da horrek guztiak aurretik zegoen osagai burokratikoaren handitze gogorra ekarri zuela. Horrela, lehen kontseilari bat zegoen tokian, orain bi zeuden, bietako bakoitza zegokion Kabinetearekin (Kabinete burua, aholkulariak, laguntzaileak...). Horrekin bat, Zuzendaritza Nagusiak 3tik 4ra pasatu ziren, Zerbitzukoak 14tik 16ra eta Atalekoak 29tik 41era. Beste modu batez esanda, 20 kargu/burutza berri sortuak ziren, aurretik zeudenak baino %40 gehiago. Denak, gainera, hatzez izendatuak ziren, adiskidekeria eta klientelismoak aintzinako urrats berria emanda.

Aurrekoa gutxi balitz, 2007ko foru hauteskudeen ondoren, Gobernuak Departamentuaren "birmoldaketa" berri eta sakona egin zuen. Horretarako arrazoi nagusia kontseilari berriaren sarrera izan zen: Campoyk utzi (UPN) eta Perez Nieves (CDN) sartzen zen. Hortik kontuan izateko moduko zuzendaritza karguen igoera nabarmena etorri da. Zuzendari Nagusiak 2 izatetik 3 izatera pasatu dira; Erakunde Autonomo (Zuzendaritza Nagusiaren baliokidea) bat gehiago sortu da; Zerbitzu Zuzendaritzak 9tik 12ra pasatu dira eta Atal Burutzak 28tik 40ra. Laburbilduz, kontseilaria eta bere Kabinetea kopuru osoan sartuz, goi kargu, zuzendari eta jefeen plantilaren handitzea, berriz ere, beste %40tik hurbil dago. Modu honetan, **egungo Hezkuntza eta Kultura Departamentuetan, 8 urtetan eman den handitzea %80koa izan da.**

# burutzak:

Atal Burutzetako 55ek  
eta Bulegoko 252k ez dute  
inor gehiago jefea baino.

Okatik okara eta berriro jokatzeraz. **Sartzen diren jauntxoek gogora sortzen dira Zuzendaritza eta Burutza berriak, fakultateko lagun zaharrak, herriko adiskideak, alderdikideak edo, arau izan ohi denez, aurreko guztiaren nahasturak, horietan kokatzeko helburuarekin.** Egin behar den lana, berbera, jarduten duten langile kopurua ere berbera, baina guztiaren gaintik garrantzia duena zera da, Departamentuaren, Zuzendaritza Nagusiaren edo Zerbitzuaren organigrama ahalik eta apainduen gelditzea. Horrela, hierarkia bakoitzaren goren bakoitzak bere inguruan zenbat eta Burutza gehiago izan, are garrantzitsuagoa da bera ere. Ez da harritzekoa, beraz, 1.1 atalean azaldu denez, gaur egun Burutza betetzen duen pertsona eta beste inor ez egotea lanean 55 Atal Burutzatan eta 251 Bulegokotan.

Bukatzeko beste zerbait esan dezagun. Eman diren gobernu aldaketek (PSN, UPN, Hirukoa) ez dute hemen agertu den joeraren inongo berrikuntzarik ekarri. Alderantziz, aldaketa hauek ez dute ezertan eragin aurretik izan duten gobernuaren herentzian, zeren eta, grosso modo, sartu den Gobernu bakoitzak egin duena zegoen egiturari Burutza berriak gehitzea izan da, "zuzendari talde berriei" lekua egiteko. Logikoki ondorioztatzen denez, **Burutza handitze neurrigabeko honekin batera, Administrazioaren eguneroko jardunean agertzen diren elefante hilerrien eta maila burokratiko inutilen gehikuntza baliokidea ematen da.**

### **1.3.- Burutzen izendatzearen tokomotxo.**

Indarra duen araudian<sup>7</sup> ezarritakoaren arabera, Zuzendari Nagusiak eta Zerbitzukoak Gobernuak libreki izendatuak izan daitezke, inongo lehiaketaren bidez beteak izan beharrik gabe. Izendatzeko askatasuna osoa da Zuzendari Nagusien kasuan, Zerbitzu Zuzendariak Foru Administrazioako funtzionarioen artean izendatu behar diren bitartean.

Guztiz kontrakoa gertatzen da Administrazioaren egitura hierarkikoko azken mailak diren Atal eta Bulegoko Burutzekin. Kasu hauetan, legeak dio<sup>8</sup> lanpostu hauek Burutzak eskatzen duen titulazioa duten funtzionario guztiek parte hartu dezaketen deialdi publikoaren bidez bete behar direla. Lanpostu hauek betetzeko ezarritako sistema, meritu lehiaketa da, non antzinasuna, formazio ikastaroak, argitarapenak, hizkuntzak eta abar baloratzen diren. Lehiaketa hauek ebatzen dituzten epai mahaiak bete behar den Burutzaren goiko mailetako bi jefek, gehi Langileen Batzordeak izendaturiko pertsonak osatzen dituzte.

Lehiaketa hauek, sindikatuek eta Langileen batzordeek<sup>9</sup> behin baino gehiagotan salaturiko eta kasu nahikoetan dagoen pikareskaz gain, nolahi ere Administrazioak libreki eta gogara nahi duena izendatzea onartzen ez duten prozedura publiko, ireki, arautu eta helegitea onartzen dutenak izaten dira, aurretik ezarritako zenbait arau eta gutxieneko kontrolaren menpe jardutea eragiten dutenak.

**Sartzen diren jauntxoek gogora sortzen dira Zuzendaritza eta Burutza berriak, fakultateko lagun zaharrak, herriko adiskideak, alderdikideak edo, arau izan ohi denez, aurreko guztiaren nahasturak, horietan kokatzeko helburuarekin.**

Orobat Legeak aurreikusten du salbuespen pare bat non Administrazioak izendatu ditzakeen, inongo lehiaketarik gabe, Burutza horiek beteko dituzten pertsonak. Lehenak, Burutza horietan hutsuneak jubilatuz, zendu, dimisioa, beste kargu baterako izendapenarengatik... gertatzen direnei erreferentzia egiten die. Kasu hauetan, Administrazioak "bitarteko" izendapenak egin ditzake gehienez ere urte baterako eta epe honetan meritu lehiaketa deitu behar du Burutza horiek betetzeko. Bigarren salbuespena, nagusiki 80. urteetan garatu zen Estatutik Nafarroarako eskuduntza transferentzia prozesuan ikusi zen. Kasu hauetan, hau da, gauzatzeko zeuden transferentzietan, bitarteko izendapenen epeak lehen aipaturiko urtea gainditu zezakeen. Bada, amaitu zen sasoi baterako emandako fakultate baten gehiegizko erabilpen argia eginez, meritu lehiaketarik egin gabe Administrazioak segitu dut hatzez egiten ia izendapen guztiak.

2002. urtean, CCOO eta UGTk sinaturiko Hitzarmen sindikalak arautu zuen egoera hau LABek eta beste sindikatuek kritikaturiko formula batekin, zeinak araudiaren betetze zorrotza exijitu beharrean (Atal eta Bulego Burutza guztiak meritu lehiaketaren bidez betetzea), helburu hau %100ean betetzeko zortzi urteko epea ematen zion (urteko %12,5) Administrazioari.

Sinaturiko hitzarmena hori egon arren, Administrazioak, aitzakia ezberdinen bidez, ez du sinaturikoa bete. Lehenik, Burutza sortu berri guztiak -eta orduz geroztik sortu direnak asko dira, 1.2 puntu ikusi dugunez-, hatzez izendatzen segitzen dute eta ez nahitaezko meritu lehiaketa bidez. Beste alde batetik, Administrazioak, kasu batzuetan, zegozkien meritu lehiaketak gainditu ondoren Burutza lortu zuten pertsonen boikota egin die, Burutza horiei izena aldatzearen trikimailu baldarraren bidez. Horrela lanpostuaren jabe zilegia kargutik kendu eta bere ordean Administrazioak gogokoago duen pertsona berria izendatzen da.

Laburbilduz, **gaur egun dauden Atal eta Bulego Burutzetako erdiak, gutxi gora-behera, hatzez izendatuak izan dira eta ez nahitaezko meritu lehiaketa bidez.** Aipatu behar da, azkenik, lehiaketa hau azkenean deitzen dutenean, Burutza horiek bitarteko betetzen zituzten pertsona horiek eskuratzeko egoera onuragarriagoan aurkitzen direla. Eta hau, meritu lehiaketan modu garrantzitsuz Burutza horrek gauzatu duen lanari buruzko "memoria" bat egitea baloratzen denari esker, zeina, logikodenez, askoz errazago suertatzen zaio bitarteko izendaturik lan hori egiten urteak daramatzanari.



### **1.4.- Plantila sexista, euskararen bazterketa eta aldibaterakotasunean egonkortua.**

Azkenik, ezin ditugu plantila organikoaren azterketaren ondoren agertu diren interes handiko hiru aspektu aipatu gabe utzi: a) egitura hierarkikoaren jite sexista eta matxista; b) euskararen bazterketa kontziente eta militantea, eta c) dagoen behin-behinekotasun oso handia eta justifikaezina.

#### **a) Sexismo eta matxismoa.**


Aurrekoa, plantila organikoan dauden Burutzetako genero irakurketa egin eta gero gelditzen da agerian. Honela, hierarkiaren beheko mailetan (Bulego Burutzak) kargu hauek betetzen dituzten emakumeak %57 badira gizonezkoen %43ren aurrean (plantilan dauden ehunekoaren antzekoa), hierarkian igotzen garen heinean, emakumeen etengabeko bazterketa azeleratuarekin aurkitzen gara. Horrela, hierarkiaren hurrengo mailan (Atal Burutzak) gizonen eta emakumeen arteko proportzioa %63,67 eta %36,33koa da, hurrenez hurren; Zerbitzu Zuzendaritzetan %75 eta %25 eta, azkenik, hierarkiaren goi-goian -Zuzendaritza Nagusiak-, proportzioa %81,40 %18,60ren aurrean dugu.

Honetarako esan behar dugu Zerbitzu Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Nagusiak izendapen libreko postuak direla; hau da, Gobernuak hatz erakuslez egiten dituen izendapenak dira. Aitzitik, Atal eta Bulego Burutzak -teorian gutxienez- lehiaketa prozeduren bidez bete behar dira, meritu lehiaketak kasu.

Bada, goian adierazitako datuen bistan, bi konklusio atera ditzakegu. Lehendabizikoa, **Administrazioaren egitura hierarkikoa oinarri sendo sexista eta matxisten gainean finkatuta dagoela**. Bigarrena, **Burutzak betetzeko erabilitako sistema zenbat eta antidemokratikoago izan eta zenbat eta gehiago erabili "hatz erakuslea", are gehiago nabarmentzen da jite sexista eta matxista**.

#### **b) Euskararen bazterketa.**

2005eko abenduaren 31n (egoera ez da ia aldatu ordutik), **Nafarroako Gobernuaren Departamentuetako zortzitan ez zegoen euskararen ezagutza eskakizun gisa baloratua zuen lanposturik eta, horietako zazpitan, ezta meritu gisa baloratu ere**. Nabarmentzeko, eskandaluzkoa izateagatik, Kultura Departamentuak ez izatea inongo lanposturik eskakizun mota honekin.



Horrekin batera, Administrazioaren zerbitzu zentral garrantzitsuetan, Nafarroako biztanlego osoari aktibitatea zuzentzen diotenak (Foruzainak, Suhiltzaileak eta Salbamendua, Nafarroako Ospitalea, Virgen del Camino Ospitalea, Ubarmin klinika, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua, Nafarroako Kirol eta Gazteen Institutua eta Nafarroako Emakumearen Institutua...), ez zegoen inongo lanposturik euskara balaratzen zuenik, gutxi izanda ere.

Itzultzaile unitateei dagokienez, soilik Lehendakaritza Departamentuan (Nafarroako Aldizkari Ofizialari loturik) eta Hezkuntzakoan existitzen ziren. Gainerakoetan -bederatzitan- ez zuten bitartekorik honelako lana egin ahal izateko eta, ondorioz, eskatzen zuten pertsonen zuzenean euskaraz harrera egin ahal izateko.

Ondorioz esan dezakegu, iraganean bezala, **Foru Administrazioa eskuinak eta espainolismoak duten eta euskararen kontra atentatzeko eta beren elebarkatasun ustel, baztertzaile eta xenofoboaren arrabola inposatzeko duten tresna nagusienetako bat dela.**

### c) Prekarietatea eta behin-behinekotasuna.

Nafarroako Gobernuaren Administrazioiko prekarietate tasak bereziki kezagarriak dira. Horrenbeste ezen 2005. urtean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak<sup>10</sup>, argitaratu zituen datuen arabera, **Nafarroa zen estatuko Elkargo bakarra non behin-behinekotasuna sektore publikoan pribatuan baino handiagoa zen.** Eta Elkargoen rankingean, behin-behinekotasun tasa handiena zuen seigarrena, Andaluzia, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Ceuta-Melillaren atzetik. Bistakoa da, beraz, Foru Administrazioa, eredia izan beharrean lotsagarria dela.

Comptos Ganberak<sup>11</sup>1996-2005 tartean plantila organikoak izan zuen eboluzioari buruz egindako txosten batean, nabarmendu da plantila %20 handitu dela baina beteriko plazak soilik %13 handitu dira, gainerakoak hutsik geldituz. Honi esker, behin-behinekotasuna, gutxitzetik urrun, gero eta handiagoa da eta, honela, 2005eko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuaren Administrazioan enplegaturiko 22.504 pertsonatatik, 7.871 (%35) behin-behinekoak ziren.

**Errekorra:**  
2006. urtean, pertsona bakar  
batek 188 lan kontratu  
izan zituen Osasunbidean!!

## 2.- ZERBITZU PUBLIKOEN PRIBATIZAZIO POLITIKA: EXTERNALIZAZIOA, EMAKIDAK, ENPRESA PUBLIKOAK<sup>12</sup>...

Honi dagokionean nabarmendu behar den lehendabizikoa, **politika hau ez dagoela soilik loturik Nafarroak izan dituen eskuineko gobernuekin -UPN-, baizik eta loturik dagoela, baita ere, eta modu garrantzitsuan, PSNren gobernu ezberdinekin eta Hirukoarekin.** Areago, prozesu honen guztiaren hasiera (Nekazaritza, Ogasuna...) PSN-Urralbururen gobernuetan eman zen, "pribatizazioa" eta "modernotasuna" lotzen zituen diskurtso baten bidez.


Nabarmentzeko bigarrena da, pribatizazio prozesuak Administrazioaren Departamentu guztiak biltzen baditu ere, hedatuena aurkitzen den eremua, alde handiarekin, Gizarte Gaietakoa dela (Gizarte Ongizatea zena). Horrela, sektore sozial kaltetuenak atenditzeko den Departamentua (ezinduak, hirugarren adina, errenta baxuenak...) ekinen pribatua erosoan ibiltzen den departamentua da eta Administrazioak aurrekontu publikoen sosak beren esku errazen uzten duena.

Edozein kasutan, Departamentu honetatik ez urrun Landa Garapenerako eta Ingurumen Departamentua, Herri Lanak, Garraio eta Komunikazioak daude, zeinetan gauzatzen den lanaren zati handiena kontrata pribatuek edo enpresa publikoek egiten duten.

Aipamen berezia Ekonomia eta Ogasun Departamentuak merezi du, non, hainbeste aldiz sindikatuek eta Langileen Batzordeek salatu dutenez, bere zerbitzuen pribatizazioak nafar zergadun guztien datu pertsonalak, soldatetakoak, ondarekoak eta finantzarioak esku pribatuetan (IECISA, El Corte Inglesek jabetza duen informatika enpresa, eta abar..) uzten ari diren.

Pribatizazio hau gauzatzen den mekanismo nagusiei dagokienez, ondoko hiru hauek nabarmenduko ditugu: a) ondorengo pribatizazio praktikarako tarteko katebegia diren enpresa publikoen sorrera; b) lehiaketa publiko bidez zerbitzuen externalizazio/kontratazioa enpresa pribatuei; c) entitate eta enpresa pribatuekiko Kontzertu eta Hitzarmenak egitea.

Hiru mekanismo hauetatik, lan honetan batez ere lehenengoan zentratuko gara. Hau da, enpresa publikoen bidez gauzatzen dena, hau baita garrantzitsuena, kuantitatibo eta kualitatiboki. Nolanahi ere, aurrekoari ekin baino lehen, aipamen pare bat egingen diegu beste biei eta hauek Gizarte Gaietarako Departamentuan, Osasunbidean eta Hezkuntzan duten islari.

 Nafar zergadun guztien datu pertsonalak, soldatetakoak, ondarekoak eta finantzarioak "Informatika El Corte Ingles-IECISA"-ren eskuetan daude.



## 2.1.- Zerbitzu publikoen esternalizazioa.

"Esternalizazio bidezko zerbitzu publikoen pribatizazioa Administrazioan gero eta hedatuen dagoen praktika da. "Modernotasun" eta "efikazia" kontzeptu faltsuekin loturik, badirudi kontseilari eta zuzendarien "ekite ona" orain arte plantilak berak egiten zituen lanak enpresa pribatuei esleitzeko gaitasunaren arabera neurtuko litzatekela. **Departamentu eta Zuzendaritzetan olio putzu bezala hedatzen ari den orbanaz ari gara: lehen Administrazioak egiten zituen lan eta zerbitzu publikoen desegite partzial edo osoa**, bere egunean Administrazio Guneko eta Gizarte Ongizateko Langileen Batzordeek<sup>13</sup> batera salatu zuten moduan, besteak beste, hurrengo zerbitzuetan eragina izan duena:

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan: informatika zerbitzuak, ibilgailuetako parkearen mantenua, inprenta, eraikinetako zaintza, Parlamentuan eztabaidatu behar diren lege proiektuen kontratazioa unibertsitateko irakasleei (zertarako daude Zerbitzu Juridiko Zentralak eta Departamentuetakoak?), eta abar.
- Ekonomia eta Ogasun Departamentua: errenta zerbitzuaren telefono bidezko arreta, artxibategi zerbitzua, zenbait informatika zerbitzu...
- Toki Administrazioko Departamentua: Hirurteko Planari dagozkion zenbait lan...
- Kultura eta Turismo Departamentua: Artxibategi Orokorra (publikoaren arreta, reprografia, garbiketa...), liburutegiko zerbitzu batzuk...
- Osasun Departamentua-Osasunbidea: garbiketa, ikuztegia, anbulantziak, sukaldea...
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua: errepideen mantentze eta zaintza (seinaleztapena, konponketak, neguko bideragarritasuna...), barnean harturik lan hauen koordinazioa, proiektuen erredakzioa, zuzendaritza, lanen jarraipena...
- Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lana: aktibitateen ikuskaritza (IAT, berogailuak, igogailuak, gas, behe tentsioa...).Eta abar...

## 2.2.- Gizarte Gaietarako Departamentua.

**Hau da, aldearekin, azken urteotan, funtzioen huste eta pribatizazio maila handiena jasan duen Departamentua.** Horretarako erabili den formula izan da, batez ere, entitate eta enpresa pribatuekiko Kontzertu eta Hitzarmenen burutze neurritz kanpoko eta interesatua. Beste alde batetik, arreta publikoaren behar handiena duten sektoreei (ezinduak, hirugarren adina, familia behartsuak, gizarteratzekoak...) zuzendutako gizarte zerbitzuak, hain zuzen ere, entitate eta enpresa pribatuek kudeatuenak direla nabarmentzea beharrezkoa da.

Eremu honetan, zerbitzu hauek publiko gisa hasierako oinarriko konfiguraziotik -80. hasieran- gaurko egoerara pasatu da, non horien merkantilizazioa orokorra den. Horri esker, eremu hau ahogozagarri bilakatu da (zahar etxeak...) zeinera, gero eta gehiago, mota guztietako enpresa pribatu eta fundazioek<sup>14</sup> jotzen duten Kontzertu eta hitzarmen bila.

- ▶ Zein arriskutan daude gure datu guztiak "Informatika El Corte Ingles" bezalako enpresa baten eskuetan?
- ▶ Ekonomia eta Ogasun Departamentuak gure datuak babestu behar dituenean, zein interesen menpe pribatizatzen ditu?
- ▶ Zer egin horren tamainako bidegabekeri eta abusu aurrean?

Enpresa hauek, beste alde batetik, ia beti hiru ezaugarri hauek biltzen dituzte: Nafarroako Gobernuko lehendakari eta kontseilarien beraienak<sup>15</sup> baino altuago diren zuzendarien soldatak, soldata eta lan baldintzak oso txarrak eta, azkenik, aurrekotik eratorriak, prekarietate tasa altuak eta langileen mugimendu handia. Nafarroan dagoeneko 10.000 pertsona baino gehiago biltzen dituen eta horietako %60 behin-behinekoa den eta industria eta zerbitzuetan<sup>16</sup> dauden batez bestekoak baino soldata baxuagoa duen sektoreaz ari gara. **Horrek guztiak, jakina, oso eragin zuzena du motibazioa galtze profesionalean, zerbitzuan, eskasa eta kalitate baxukoa, eta Administrazioak berak ematen dituenak baino garestiagoa.**

### **2.3.- Osasun Departamentua-Osasunbidea.**

Nafarroan, 1975 eta 2000. artean iragandako hogeita bost urteetan, osasun publikoaren gastua jaistearekin batera, osasun pribatuaren gastua igo da. Honela, **1975ean, osasunari zegokion gastu guztiaren %78 publikoa eta %22 pribatua ziren bitartean, 2000. urtean, hurrenez hurren, %71 eta %29 izatera pasatu ziren.**

Norabide berean, osasun gastuaren eboluzioak BPGrekiko, 1993-2001 tartean, argi erakusten digu nola 97. urtera arte osasun publikoaren gastuaren hazkundera osasun pribatuarena baino handiagoa zen, data horretatik aurrean bigarren hau lehena baino gehiago hazi den bitartean. Zerikusia izanen al du honetan guztian UPN eta Sanzen etorrerak Gobernura? Administrazioetik, adostutako Hitzarmen eta Kontzertuen bidez, sekulako diru kopuruak (30 milioi euro inguru) desbideratzen dira hainbat osasun zentro pribatutara. Lehenengo lekuan Clinica Universitaria (Opus Dei) kokatzen da, baina parte hartzen dute, baita ere, San Juan de Dios, San Miguel eta San Fco. Javier klinikek, bereziki. Horri esker, azkenean, sektore pribatura desbideratutako diru publikoaren zati ederrarengatik, **gure aurrekontuaren pisu espezifikoak pertsona bakoitzeko Europa eta Estatuko batez besteen azpitik kokatzen da: Nafarroan, BPGren %4,9; Estatuan, %5,5; Europan, %6a.**

Aurreko guztiaren ondorioz itxaron zerrendak handitu dira (30.000 pertsona espezialitate kontsultaren zain; 9.000 kirurgi zerrendetan; 12.000 esplorazio probetarako), asistentziak okerrera egin du, behin-behineko kontratazioa larritzeko moduan handitu da (36.000 baino gehiago behin-behineko kontratu 2006. urtean, zeinetatik 19.587k egun bateko iraupena edo txikiagoa zuten; 133 pertsonak 40 kontratu baino gehiago izan zuten urte horretan eta bakar batek 188; behin behinekotasuna %42koa da), lan erritimoak areagotu dira langileen lan osasunaren kaltetan, adimen osasunaren egitura eskasa da, sexu heziketaren asistentzia bertan behera utzi da, lehen mailako arreta masifikatu da langile faltagatik, lehen mailako osasun beharrek bete gabe diraute (eri kronikoak, zaharrak...) eta abar.

**Gizarte** 10.000 langile  
Nafarroan eta  
**Ongizatea** **60%**  
**behin-behinekotasuna...**

## 2.4.- Hezkuntza Departamentua

Gainerako departamentuetan bezala, Hezkuntzarenean ere, Hezkuntza kontzertatuaren izenpean mozorrotuta dagoen eta eliza jabe duen enpresa pribatuetara gero eta diru gehiago desbideratzeko joera dago. Fenomeno honek azken 25 urteotan gorako joera izan badu ere, areagotu zen 2001. urtean "Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko" ituna sinatu zenean eta 2007an ituna berretsi zenean. Aipatu paktuaren garapenean (uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea) ikastetxe hauek finantzatzeko neurri bereziak jartzen baitira indarrean. Nabarmentzekoa da nola handitzen diren bai diru-sailak, bai kontzeptuak, irakaskuntzarekin harreman zuzena ez duten kontzeptu berriak sortuz. Honen ondorioz, gaur egun ikastetxe kontzertatuetan dituzten azpiegiturak lortuezina den ametsa dira eskola publikorako.

Norabide berean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Haur Eskolen (0-3) kudeaketa Toki Administrazioen eskuetan uztea, LOE-k berak hezitzailetzat jotzen duen Ziklo hau privatizatzeak aukera emanez Udalei. Neurri honek badakartza, inongo zalantzarik gabe, zerbitzuaren kalitatean zein langileen lan baldintzetan galera eta kalte nabariak.

Orobat nabarmentzekoa da hainbat zerbitzu enpresa pribatuen esku uzteko politika, eskoletako garbiketa eta mantentze-lanak edota jantokietako kudeaketa, besteak beste.

Ohar labur hauek bukatzeko, gogora ekarriko dugu ordutegi malguaren ezarpenak ekarriko duen eskola ordutegiaren zati baten privatizazioa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Ordutegi hau aukeratzen duten eskoletan, ikasleei aukera eman behar diete ikastetxean egoteko ohiko den ordutegia bitarte. Horretarako eskolaz kanpoko jarduerak antolatuko dituzte, baina Hezkuntza Departamentuak emandako hitzaren aurka, gurasoek kontratatu eta ordaindu beharko dituzte.

# Osasunbidea

36.000 behin-behineko lan kontratu 2006. urtean  
19.587 egun bateko edo gutxiagokoak  
133 pertsonak 40 kontratu baino gehiago

### 3.- ZERBITZU PRIBATIZAZIOA ENPRESA PUBLIKOEN SORRERAREN BIDEZ.

Lan honetako espazio nagusia pribatizazio mekanismo honi eskaintzeko bi arrazoi daude. Horietako lehena honek duen garrantzi objektibo neurgarriarekin zerikusia du. Bigarrena, Nafarroako Gobernuko Administrazioako gobernariak eta goi karguek politika hau bultzatzeko dituzten interes argiak agerian uztea ahalbidetzen digulako.

#### **3.1.- Nafarroako Enpresa publikoen mordoiloa.**

2006ko abenduaren 31n hogeita hamabi enpresa publiko<sup>17</sup> zeuden. Lehendabizi nabarmendu behar da hauek izan duten hazkunde iraunkorra, izan ere aurreko ikerketan, 2002ko abenduaren 31n, hogeita zortzi ziren. Hortaz, urtero enpresa berri bat sortu da.

Aurreko datua, mardula izanda ere, ez dagokio errealitateari, Nafarroako Gobernuak, SODENAREN bidez, beste berrogei enpresa pribatutan parte hartzen baitu, batzuetan kapitalaren %50etik hurbil izanda (Ecoenergía Navarra, S.L. -%44,23-; Ecoenergía Sistemas Alternativos, S.L. -%45-; Industrias Savidai -%45-; Openbravo -%45-; Eina -%45-; Angel Garro, S.L. -%45, eta abar). Beraz, bada sare ekonomiko eta finantzario oso bat zeinaren bitartez Nafarroako Gobernuak garrantzi eta munta ekonomiko handiko operazio eta kontratazioak egiten dituen.

Enpresa hauen guztien izena eta beraien estatutuetan agertzen den xede soziala irakurrita konprobatu daitekeenez, horietako askok bat egiten dute aktibitatean edo osagarriak dira: Riegos de Navarra/Riegos del Canal de Navarra; Navarra de Suelo Industrial/ Navarra de suelo residencial; Baluarte/Planetario... Horrela ez da ulertzen, beren sorrera beharrezkoa zela onartuta ere, hauek talde txikiagoa ez osatzea, hauek bakoitzak daudenetako batzuk beren baitan hartuz, Comptos Ganberak<sup>18</sup> azpimarratu duenez. Horrekin eskuragarri dauden baliabideen -antolakuntzakoak, giza baliabideak...- arrazionaltasuna eta enpresa-egituren sinplifikazioa lortuko liriteke. Beste alde batetik, nola ulertu daiteke hauek enpresa batzuek (Start Up, Saldosa, Riegos del Canal de Navarra) batera langilerik ez izatea beren nominan?

Aurrekotik eratortzen da hurrengoa: neurri handi batean, enpresa hauen sorrerak helburu edo interes publikoren batekin harremana izan baino, **beren kontratazio eta aktibitateen kontrola zailtzen duen eta ahalik eta korapilatsu eta opakoen den sare baten sorrerarekin dagoela loturik. Horrekin batera, bilatzen den bigarren helburua zuzendaritza postuak eta Administrazio Kontseiluak artifizialki biderkatzea da,** Administrazioako goi karguen artean banatuak izateko. Hau gertatzen da, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Enpresa publiko hauen sorrera beren kontratazio eta aktibitateen kontrola zailtzen duen eta ahalik eta korapilatsuen den sare baten sorrerarekin dago loturik...

helburua?

Enpresa hauetan guztietan inbertituriko kapitalari dagokionez, 2006. urteko amaieran 400 milioi euro ingurukoa zen. Enpresen artean, batzuen gutxieneko kapital soziala 60.000 eurokoa zen bakarrik (ITG Agrícola, Planetario, Autoaprendizaje de Idiomas,...), beste batzuek, ordea, askoz handiagoa zuten: NAFINCO, 52 milioi; Baluarte-Palacio de Congresos, 40 milioi, eta abar...

SODENA, S.A.k aparteko aipamena merezi du, bere inbertsioek aurkezten duten aniztasunagatik eta horien koherentzia faltagatik. Honen adierazlea izan da Iberdrolaren akzio erosketaren operazio "handia", frogatu duena Elkarte horren funtzionamenduak Nafarroaren garapenarekin zerikusi gutxi duela eta bai zerikusi handia finantza-espekulazio gordinarekin. Baina, honez gain, SODENA, S.A. partaide duten enpresen zerrendari begiratzen badiogu, horien helburuak ikusiko ditugu: tabakoa ekoizteko makinaren fabrikazioa (MTS Tobacco), kirol galtzerdien ekoizpena (Industrias Sabidai), xarma duten hotel kate baten promozioa (Fondetur S.A.), inbertsio fondoak (MCC Navarra SPE), espainolaren irakaspena (Pamplona Learning Spanish Institute), larruazalerako farmakoen ekoizpena, eta abar... Zein da honen guztiaren logika forala?

Horrengatik, **enpresa hauen guztien sakoneko azterketa, horietan egindako inbertsioen eta beren administrazio kontseiluetan eta zuzendaritza batzordeetan parte hartzeko SODENA, S.A.k izendaturiko pertsona guztien ikerketa sakon bat egitea interes gorenekoa litzateke.** Hau eginen balitz, litekeena da harreman pertsonal edo alderdiko bat baino gehiago argitara ateratzea inbertsio hauek justifikatzeko, zeren eta horietako askori gutxieneko oinarria ere falta zaio Nafarroaren "garapenaren" behararen ikuspegitik. Zentzu honetan, Parlamentuko taldeei<sup>19</sup> datu mota hauek emateko ezezkoa eta oztopatzeak oso argi uzten du UPNko Gobernuak zerbait ere ezkutatzeke baduela.

### **3.2.- Enpresa publikoak, interes partikularrak.**

Dauden datu ofizial urriek, nolnahi ere, kontratazio araudiak ezarritako trami-teak saihesteko enpresa hauek osatzen duten estalkia agerian uzten dute. Honela, aurretiko publizitatea, konkurrentzia eta kontratazio irizpideen objektibizazioan oinarrituriko prozeduren bidez esleitzeko beharra ekiditen da. Administrazioa bilakatzen da horrela ohiko jauntxoek gogara egiten eta desegiten duten kortijoa.

Hau ez da baieztapen funtsik gabea. Comptos Ganberak<sup>20</sup> berak nabarmendu du Gobernuak erabili duela enpresa sare hau esleipen zuzenak estaltzeko, hatz erakus-lez pertsonala izendatzeko eta kontratazio opakuak egiteko. Iritzi orokorra dena, UPN-ren Gobernuan bazkide den Juan Cruz Alli CDNko bozeramailearena berarena barne, nork esan duen<sup>21</sup>, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak erabili dituela enpresa hauek "zuzenbide administratiboaren kontrola ekiditeko", nahiz eta argi utzi hori ez dela "guk -UPN-CDNren gobernu- asmatu dugun zerbait, baizik eta exekutibo sozialistek ere jada egiten zuten zerbait".



Aipaturiko Comptos Ganberaren Txostenak nahiko alde interesgarri zituen. Lehenik nabarmentzen zuen **“askotan enpresa publikoak Administrazio eta kontratisten arteko bitartekari hutsak direla gestio gastuak fakturatz eta Administrazioak esleiturik izan balitz izanen zukeen prezioa garestituz”, erantsiz, gainera, “ez dela inon agertzen Nafarroako Gobernuak, oro har, esleituriko lanen fakturazioa eta kostea konprobatu eta egiaztatu egiten dituenik”. Horren ondorioz aurrekoaren garestitzea %3 eta %20 artean zebilen.**

Bigarrenik, Txostenak esaten zuen Nafarroako Gobernuak enpresa publiko ezberdinei lanak gauzatzeko egindako 25 enkargutatik, 17tan ez zela legalitatea bete, “enkargua egiten zaion enpresaren baliabide material eta humanoak eta, batzuetan, enpresa publikoaren xede soziala ere gainditzen zituzten lanak” haiei esleituz .

Ekonomia eta Ogasun Departamentua zen lan mota hauek desbideratzera bolumen ekonomiko handiena erabili zuena. Adibide gisa, nabarmentzen zen TRACASAK azpikontratatu zuela Toki Administrazioako sistema ekonomiko fiskalen asistentzia teknikoari zegozkion lanen %60 baino gehiago (bide batez esanda, honek ahalbidetu zuen eremu garrantzitsu honi dagokion informazio guztia enpresa pribatuen esku gelditzea), indarrean den araudiak ezartzen dituen mugak gaindituz.

Hirugarrenik, Txosten berak ziurtatzen du aztertutako 14 enpresetatik 8tan, horietako langileria (mila pertsona baino gehixeago) hatz erakuslez kontratatua izan dela. Ez zaie “proba objektiborik egin, soilik elkarrizketak, kontratatze lanpostuaren hautagai ezberdinei, eta ez da idatziz ageri horien gauzatzea eta balorazioa” eta “kasu batzuetan, langileak kontratatze enpresa publikoak segitu duen prozeduraren berri ere ez da ageri”. Hau loturik dago, langile horiek berezkozat kontsideratzeko eta, neurri horretan, funtzionarioekin parekatze, bai ordainsarrietan, bai lan baldintzetan, sindikatu guztien aldarrikapenaren aurrean Nafarroako Gobernuak -PSN eta UPNrenakemandako uko borobilarekin.

Aurreko guztiaren adibide paradigmatico gisa 2008. urteko hasieran argitara atera den azken eskandalua gogoraziko dugu. “Nafarroa, guztion arteko etorkizuna” delako erakusketaz ari gara, zeina Foru Gobernuak SODENari enkargatua izan zen eta, erakusketetan goi teknikari inpartzial eta ospetsua den Victor Manuel Arbeloak komisiariatua izan den. Zigor gabeko jarduera hauen inguruan mugitzen diren ezkutuko interes opakoen froga nabarmena den esleipena.



**“askotan enpresa publikoak Administrazio eta kontratisten arteko bitartekari hutsak dira, gestio gastuak fakturatz eta Administrazioak esleiturik izan balitz izanen zukeen prezioa garestituz”**

*(Comptos Ganbararen txostena 2007/06)*

Erakusketa, azkenean UPN-CDNren Gobernuak egindako "lorpen" politikoen kantu apologetiko lotsagabea izan zena, SODENari enkargatu zitzaion. Enpresa publiko honen Administrazio Kontseiluan Gobernuko zenbait kontseilarik eta zuzendari nagusik hartzen dute parte eta Jose Maria Aracama, UPN-CDNren Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilari ohia, zuzendari nagusia du. Esleipena zalantzan jarri du Comptos Ganberak, "enkargua eman baino lehen ezinbertzekoak diren tramite tekniko, juridiko, aurrekontukoak eta gastua kontrolatzeko eta onestekoak egiteko beharra aipatzen duen araudia ez betetzea egotziz.

Gobernuaren jokabide bidegabea ez da lehen agertutakoarekin amaitzen, guztiz kontrakoa baizik. Juan Ramón Corpas -Kultura kontseilaria-, Francisco Iribarren -Ekonomia eta Ogasun kontseilaria-, eta Joaquín Ortigosak -Komunikazio zuzendari nagusia- osaturiko "lan talde" batek espreski gomendatu zion SODENako zuzendari kudeatzaile den Jose Maria Aracamari -Ekonomia eta Ogasun kontseilari ohia- Arte Viva Europa Fundazioarekin harremanetan jartzeko erakusketaren esleipenaz aritzeko. PP-rekin arras lotuta dagoen Fundazio horretako Patronatuan parte hartzen dute Pio Cabanillasek (Aznarren Gobernuko ministro ohia) eta Antonio Catalanek, hotel enpresaria, Miguel Sanzengandik hurbileko Korellako sagakoa. Brasilen jatorria duen Fundazio honen berme nagusia, 2003. urtean PP-ren gobernuak enkargatu zion Konstituzioaren XXV. urtemugari buruzko erakusketa egin izana zen. Hala eta guztiz ere, aurrekoari foru eta nafar kutsu ematearren, elkarte honek Arte Viva Navarra izeneko filial bat sortuko du, azkenean lan hori gauzatuko duena.

Erakusketak, 3,76 milioi euroko (620 milioi pezeta baino gehiago) kostua izan zuena, turrustan utzi zituen zegozkien gastu erantsiak: SODENA, Arte Viva, Komisarioa... Esate baterako, V.M. Arbeloak bere "komisario" lanagatik jaso zuena 60.000 euro izan ziren (10 milioi pezeta). Suposatu daiteke Erakusketaren osatze lanetan parte hartu zuten gainerako enpresa eta pertsona garrantzitsuek jasotako etekinak aipaturiko kopuruaren antzekoak izan zirela.

Aurrekoa, tamalez, enkargu eta esleipenen parte handiarekin gertatzen denaren lagina besterik ez da, horiek, enpresa publiko ezberdinen bidez, lagunek eta alderdiki-deek lehentasunezko tokia okupatzen duten negozioen zirrikituetatik galtzen baitira.

Start Up, nominan langilerik  
ez duen enpresa publikoak,  
18 karguk osaturiko  
Administrazio  
Kontseilua dauka...



## Komisarioa



V.M. Arbeloa  
Konstituzioari  
buruzko XXV.en  
urtemugaren  
erakusketaren  
"komisarioa".

## 4.- ZERBITZU PUBLIKOEN PRIBATIZAZIOAREN ONDORIOAK.

Hona hemen, hitzez hitz, eskuartean dugun gaiaz Nafarroako Gobernuko Administrazio Guneko eta Jendarte Ongizateko Langileen Batzordeek (AFAPNA, ASIT, CCOO, ELA, LAB, SAE eta UGT)<sup>22</sup> ateratako ondorioak:

*"1.- Enpresa pribatuaren helburua, legeak hala onartua, etekin ekonomikoak lortu eta bere kapitalaren jabe direnen artean banatzea da. Beste helburu batzuk lortzea (adibidez, kalitatezko produktuak eskaintzea, sektore sozial jakin batzuei arreta berezia eskaintzea,...), inoiz eman badaiteke ere, beti helburu nagusiaren menpe geldituko da: etekin ekonomikoen lortzearen menpe alegia.*

*2.- Honen arabera, bada kontraesan bat, kasuan kasu handiagoa edo txikiagoa izanen dena, Administrazioek eta bere Zerbitzu Publikoek izan beharko lituzketen helburuekin. Kasu honetan, lehenik eta behin, sozialki beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, arreta soziala...) bermatzea da helburu nagusia, eta inola ere ez etekin ekonomikoen lortzea. Zerbitzu hauek eskaintzeak duen kostua, noski, aintzat hartzekoa da, baina inoiz ez lehentasunezko maila batean.*

*3.- Etekin jakin bat lortu behar izateak (Administrazioari, berriz diogu, ez dagoen helburua) enpresa pribatua maiz elkar loturik dauden bi bide jorratzera darama: a) kalitate eskasagoko zerbitzu bat eskaintzera, eta b) bere langilegoari lan baldintza eskasagoak ezartzea. Argi dagoenez, lan baldintzen okertzeak kalitatezko zerbitzu baten kaltetzea dakar, langileriaren motibazio falta areagotzen baitu (hainbat zerbitzu eta arreta sozialetan oso garrantzitsua izan daitekeena).*

*4.- Halaber, aipatu beharrekoa da Administrazioan bizi izan ditugun pribatizazio prozesuek plantilarengan sortu dituzten kalteak: funtzio galerak, baztertze profesionalak, funtzio eta lan baldintzen aldaketak, ... Zentzu honetan, ohiko bilakatu da Administrazioan hainbat zerbitzu bertan behera uztea (bitarteko teknikoak ez berritzea, amortizatu edo betetzen ez diren plaza hutsak,...) zaharkituta geratu direnaren aitzakiapean edo behar berriei (laborategiak, automobilen parkearen mantenua,...) aurre egiteko gai ez direla esanez, eta modu honetan zerbitzu hauen esternalizazio/pribatizazioa bultzatzen dute, lan horiek egiteko "gai" diren enpresa pribatuen esku utziz.*

**Enpresa pribatuaren helburua, etekin ekonomikoak lortzea bada, eta Administrazioarena zerbitzu publikoak ematea (sozialki onuragarriak baina ez ekonomikoki)**

5.-Azkenik, guztiz onartezina da enpresa publikoan, Administrazioako langile orok dituen lan baldintzak ez dituzten langileak kontratatuak izatea. Arrazoiak argiak dira: zergatik izan, bi kasuetan patronala bera izanik -Nafarroako Gobernuak-, lan baldintza ezberdinak batzuentzat eta besteentzat?; zergatik baloratu behar ditu beste era batera Nafarroako Gobernuak enpresa publikoko langile hauek, sarritan Administrazioako plantilako langileek betetzen dituzten maila eta interes sozial bereko zerbitzuak betetzen badituzte?.

Hauxe da galdera: zergatik bultzatu pribatizazioa, zerbitzu publiko eskasago bat eraginen baldin badu?; Comptos Ganberak dioenez Administrazioak esleituta izango litzatekeenarekin alderatuz lana %3 eta %20 artean garestitzen baldin badu, zergatik egin horrelakorik?

**Bada, gure ustez, kontseilarien eta Nafarroako Gobernuko Administrazioako goi funtzionarien artean pribatizazio politika hau bultzatzeko interes objektiboak badirela baieztatu daiteke.** Interes hauek, arestian aipatu dugun "Navarra un futuro entre todos" erakusketaren kasuan argi geratu den bezala, politika honek izan duen bultzakadaren atzean daude, bertatik etekin interesgarriak lortzen baitituzte: ekonomikoak, jendartean eta politika munduan duten eraginean, boterea...

Nori interesatzen zaio zerbitzu publikoen pribatizazioa?  
Nortzuk dira politika pribatizatzaile horren onuradunak?



## 5.- NAFARROAKO GOBERNUAREN ENPRESA PUBLIKOETAKO ZUZENDARITZA EGITURA ETA HAIEN PLANTILAK

Ondorengoak, 2005ean LABek Enpresa Publikoei buruz argitaratu zuen dosierri<sup>23</sup> jarraipena ematen dio, gehiago osatuz. Enpresa publiko hauetako Administrazio Kontseiluen osaketa aztertuko dugu, eta Nafarroako Gobernuko Administrazioaren egitura politiko-administratiboarekin erlazionatuko dugu. Azkenik, enpresa hauek dituzten soldaten egituraketa eta kontseilari-administrariak jasotzen dituzten dietak aztertuko ditugu.

Gorago aipatu dugunez (12. orr, 17. oharra), 2006ko abenduaren 31n Nafarroan 32 enpresa publiko zeuden. Edozein kasutan, kasu askotan emandako izen ponposoak alde batera utzita, dituzten plantilen tamainak zalantzak sortarazten dizkigu ea benetan enpresak ote diren edo, besterik gabe, sigla komertzial bat.

Haietako hirutan (Start UP, Saldosa eta Riegos del Canal de Navarra), bere garaian aipatu genuenez, ez daukate pertsona bakar bat ere plantilan<sup>24</sup>, enpresa hauek benetako baliorik al duten ere pentsatzea zaila egiten delarik. Gainontzekoetatik, 21ek 25 langile baino gutxiagoko plantilak dituzte: NAFINSA, 3; Navarra de Verificaciones Legales, S.A., 4; SPRIN eta Ciudad de Transporte, bakoitzak 5; Natural Climate Sistemys, S.A., 6; POSUSA eta Navarra de Gestión, bakoitzak 8;... Beste muturrean, gutxi batzuk besterik ez dira 50 langiletik gorako plantilak dituztenak: ITG Agrícola, 62; ITG Ganadero, 88; TRACASA, 240; CEINSA, 82 eta Viveros, 115.

Lehendik aurreratu genuen ondorioa indartzen du honek guztiak: **enpresa publiko hauen sorreren biderkatzeak ez du inolako loturarik arrazionaltasun, efizakia edo eraginkortasun irizpideekin, aitzitik, nabarmena da Administrazioaren benetako funtzionamendua korapilatu eta ezkutatzeko ahalegina, bere ekimenen kontrol administratiboa, finantzarioa eta politikoa ahal bezain beste oztopatuz.**

### 5.1.- Enpresa publikoetako Administrazio Kontseiluen osaketa.

Arestian aipatu bezala, gaur egun 32 enpresa publiko ditugu Nafarroan. Bere Administrazio Kontseiluetako kideak, Nafarroako Gobernuak, jabea den heinean, izendatu ditu. 2006ko urte amaierako datuen arabera guztira 300 postu zeuden, 205 pertsona ezberdinek betetzen zituztenak, izan ere pertsona hauetako batzuek, geroago



J.J. Armendariz Quel  
Industria, Teknologia  
eta Komertzio  
Kontseilaria  
9 Kargu



E. Díaz Moreno  
Industria eta Komertzio  
Zuzendari Orokorra  
8 kargu



F. Iribarren Fentanes  
Ekonomia eta Ogasun  
Kontseilaria  
7 kargu



J.J. Echarte Echarte  
Nekazaritza, Abeltzaintza  
eta Elikadura Kontseilaria  
6 kargu



J.A. Burguete Orres  
Ingurugiro, Lurralde  
Antolakuntza eta Etxe-  
bizitza Kontseilaria  
5 kargu



J. Ortigosa Ocón  
Komunikazio Zuzendari  
Orokorra. Gobernuko  
Bozeramailea.  
5 Kargu

ikusiko dugun bezala, enpresa eta kontseilu hauetako kargu bat baino gehiago betetzen baitituzte. Dena den, enpresa publiko hauen bidez Gobernuak beste hainbat enpresa pribatutan parte hartzen duela (SODENAK 40 enpresatan) aintzat hartzen badugu, izendapen hauei esker sarituak izan diren pertsonen kopurua 205ekoa baino askoz handiagoa da.

**Azpimarratzekoa, 205 pertsona horietatik 32 besterik ez direla emakumeak; agerian geratuz, berriro ere, administrazio goi karguen (zuzendari nagusiak eta zerbitzu zuzendariak) izendapenarekin gertatu zen bezalaxe, Gobernuaren "behatza" mugitzen denean bere portaera aski matxista eta patriarkala dela.**

Ondorengo taulan, 2006ko urte amaierako datuen arabera, bi Administrazio Kontseilutan baino gehiagotan parte hartuz sarituen rankinga osatzen duten pertsonen izen zerrenda daukagu ikusgai, kargu kopuruaren arabera ordenatuta:

IZENA	KARGUA	Zk
J.J. Armendariz Quel	Industria, Teknologia eta Komertzio kontseilaria	9
Enrique Díaz Moreno	Industria eta Komertzio zuzendari nagusia	8
Fco. Iribarren Fentanes	Ekonomia eta Ogasun kontseilaria	7
J.J. Echarte Echarte	Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria	6
J.A. Burguete Orres	Ingurugiro, Lurralde Ant. eta Etxebizitza kontseilaria	5
Joaquín Ortigosa Ocón	Komunikazio eta Gobern. Boz. Bulegoko zuz. nagu.	5
J.J. Ascunce Elizaga	Etxebizitza eta Lurralde Antolak. zuzendari nagusia	4
Andrés Eciolaza Carballo	Ingurugiroa eta Ura zuzendari nagusia	4
Miguel A. Iriso Lerga	NAFINCOko zuzendari kudeatzailea	4
J. Ignacio Pérez Albeniz	Ogasun Tributarioko zuzendari nagusia	4
Angel Sanz Barea	"Sociedad para la Información"eko zuz. nagusia	4
J. M <sup>a</sup> Aracama Yoldi	SODENAKo zuzendari nagusia	3
Concep. Aranguren Alvarez	Politika Ekonomiko eta Aurrekontuen zuz. nagusia	3
L. A. Ayesa Ajona	Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria	3
Luis Campoy Zueco	Hezkuntza kontseilaria	3
J.R. Corpas Mauleon	Kultura kontseilaria	3
J.L. Echevarri Arraiza	Herri Lanak zuzendari nagusia	3
J. Echeverria Azcona	Landa Garapena zuzendari nagusia	3
J.J. Grau Las Heras	Ingurugiro zuzendari nagusia	3
Emilio Gurrea Asensio	EVENAKo zuzendari kudeatzailea	3
M <sup>a</sup> . E. Lecumberri	SODENAKo Inbertsio zuzendaria	3
J.M <sup>a</sup> . Roig Aldasoro	Berrikuntza, Enpresa eta Lana kontseilaria (2008)	3
José M <sup>a</sup> Ruiz Oyaga	POSUSAKo lehendakaria	3
Juan Santafé Rodrigo	NGASAKo kontseilari delegatua	3
Fermín Villanueva Ferreras	Lanbide eta Eskola Irakaskuntza zuzendari nagusia	3

Egiaztatu daitekeenez, **Gobernuko kontseilariak dira sarituenak. Nafarroako Gobernuak dituen 11 Departamentuetatik 8etako titularrek hauetako aulkiren bat betetzen zuten.** Txapelduna JJ. Armendariz Quel da, 9 kargurekin; gero, Fco. Iribarren Fentanes, 7 kargurekin; JJ.Echarte Echarte, 6 kargurekin eta J.A. Burquete Torres, 5 kargurekin.

Baina, koadroan ikus daitekeenez, ez dira kontseilariak Administrazio Kontseilu hauetan parte hartzen duten bakarrak. Departamentuetako Kabinete buruak, zuzendari nagusiak, idazkari teknikoak eta Zerbitzuetako zuzendariak ere parte hartzen dute, eta oso modu aktiboan gina. Datuak behar bezala eguneratzerik izan ez badugu ere, 2005ean LABek egindako ikerketa lanetik zera ondorioztatu genezake:

**Orduko Nafarroako Gobernuko Departamentuetan ziren 10 Kabinete buruetatik 5ek -%50- Administrazio Kontseilu hauetan parte hartzen zuten, 8 postu betez.**

**Administrazioan ziren 33 zuzendari nagusietatik 21 -%63,6- enpresa publikoren batean kontseilari izendatuak izan ziren, guztira 50 postu betez.**

**118 Zerbitzuko zuzendari eta idazkari teknikoetatik 44 -%38,5- Administrazio Kontseiluetako kide ziren, 53 postu beregain hartuz.**

Goi kargu hauen artean, guztien gaineratik daude Enrique Díaz (Industria eta Komertzio zuzendari nagusia) zortzi enpresatako postuak hartuz, eta Joaquín Ortigosa (Komunikazio eta Gobernuko Bozeramailtza Bulegoko zuzendaria) bost postu bereganatuz. Gero, Jesús Ascunce (Exebizitza eta Lurralde Antolakuntza zuzendari nagusia), Andrés Eciolaza (Ingurugiroa eta Ura zuzendari nagusia.), Miguel A. Iriso Lerga (NAFINCOko zuzendari kudeatzailea), J. Ignacio Pérez de Albeniz (Ogasun Tributarioko zuzendari nagusia) eta Angel Sanz Barea ("Sociedad de la Información"eko zuzendari nagusia), guzti hauek launa postu bereganatuz.

### **5.2.- Enpresa publikoetako administratzaileek jasotako parte-hartze dietak.**

Nafarroako Gobernuari esker, edo bere kontseilariren bati esker, enpresa publikoetako Administrazio Kontseiluetako kide izateko sarituak izan diren pertsonak jasotzen dituzten dietak oparoak dira benetan. Ikus itzazue, lehenengo 20 enpresa publikoetako datuekin osatutako ondorengo taulan<sup>25</sup>. Enpresak kontseilari-administratzaile bakoitzak jasoko zituen dieten batez bestekoen arabera sailkatuak daude.



J.J. Ascunce Elizaga  
Etxebizitza eta  
lurralde Antolakuntza  
Zuzendari Orokorra.  
4 kargu



A. Eciolaza Carballo  
Ingurugiro eta Ura  
Zuzendari Orokorra.  
4 kargu



J.I. Pérez Albeniz  
Ogasun Tributarioko  
Zuzendari Orokorra  
4 kargu



A. Sanz Barea  
"Sociedad para la  
Información"eko  
Zuzendari Orokorra  
4 kargu



J.Mª. Aracama  
SODENAKo Zuzendari  
Orokorra  
3 kargu



L. Campoy Zueco  
Hezkuntza Kontseilaria  
3 kargu



J.R. Corpas  
Kultura Kontseilaria  
3 kargu

ENTPRESA PUBLIKOA	Dietak guztira	Kontseilari	Dietak/kontseilari
<b>Autopistas de Navarra</b>	149.000,00 €	14	<b>10.642,86 €</b>
<b>Ciudad del Transporte</b>	55.766,02 €	8	<b>6.970,75 €</b>
<b>NILSA</b>	77.296,00 €	14	<b>5.521,14 €</b>
<b>Riegos de Navarra</b>	52.263,80 €	10	<b>5.226,39 €</b>
<b>GEDESA</b>	36.113,00 €	7	<b>5.159,00 €</b>
<b>Baluartte</b>	48.000,00 €	10	<b>4.800,00 €</b>
<b>Opnatel</b>	57.191,63 €	12	<b>4.765,97 €</b>
<b>VINSA</b>	46.863,80 €	10	<b>4.686,38 €</b>
<b>NASUINSA</b>	47.134,00 €	12	<b>3.927,83 €</b>
<b>Viveros</b>	34.077,42 €	9	<b>3.786,38 €</b>
<b>PIN S.L.</b>	22.718,28 €	6	<b>3.786,38 €</b>
<b>TRACASA</b>	35.935,19 €	10	<b>3.593,42 €</b>
<b>NAFINSA</b>	52.000,00 €	15	<b>3.466,67 €</b>
<b>NAMAINSA</b>	37.863,80 €	11	<b>3.442,16 €</b>
<b>NASURSA</b>	34.077,24 €	10	<b>3.407,72 €</b>
<b>Autoaprendizaje Idiomas</b>	18.931,90 €	6	<b>3.155,32 €</b>
<b>NASERSA</b>	41.650,00 €	15	<b>2.776,67 €</b>
<b>SODENA</b>	36.061,00 €	14	<b>2.575,79 €</b>
<b>ANAINSA</b>	15.000,04 €	6	<b>2.500,01 €</b>
<b>NGASA</b>	26.504,66 €	11	<b>2.409,51 €</b>

Nabarmenezkoa da AUDENASaren (Autopistas de Navarra, S.A.) kasua. Enpresa honen %50 Nafarroako Gobernuarena da (beste %50, Espainiako Gobernuarena zena, Nafarroarekin zerikusirik ez duen banketxe eta kutxen partzuergo batek erosi zuen) eta bere Kontseiluan Foru Gobernuak hainbat kontseilari ohik eta goi-kargudunek parte hartzen dute (Jesús María Arlabán Mateos, Angel Sanz Barea, Jesús González Albero, Jesús Oderiz Echevarria, J. J. Zabaleta Zuñiga, José Luis Echavarrri Arraiza, Concepción Aranguren Alvarez), baita Nafarroako Merkataritza Ganberaren lehendakariak (F.J. Taberna Jiménez) eta foruen eta negozioen bestelako handi-mandiek ere.



J. Mauleon  
Kontseilari



J.J. Grau Las Heras  
Ingurugiro Zuzendari  
Orokorra  
3 kargu



E. Gurrea Asensio  
EVENAko Zuzendari  
Gerentea  
3 kargu



M.E. Lecumberri Alli  
SODENAko Inbertsio  
Zuzendaria  
3 kargu



J.M. Roig Aldasoro  
Berrikuntza, Enpresa  
eta Lana Kontseilari  
(2008) 3 kargu



J. Santafé Rodrigo  
NGASAko Kontseilari  
Ordezkaria  
3 kargu



F. Villanueva  
Lanbide eta Eskola  
Irakaskuntzako  
Zuzendari Orokorra  
3 kargu

**Dietak ematen dituzten enpresa publikoek (32tik 22) 4.403,63 euro ordaintzen diote batez beste kontseilari bakoitzari;** ez dago batere gaizki, kasu askotan kontseilari/administratzaile hauen egitekoa urteroko bilkura bakarrera joatera mugatzen dela kontuan hartuta. Bestalde, **kontseilari hauetako askok aldi berean hainbat enpresa publikotan<sup>26</sup> parte hartzen dutenez,** euren izendapenaren ondorioz lortzen duten irabazia orain arte aipatutako kopuruak baino nabarmen handiagoa da.

Noski, gure azterketatik kanpo geratu dira pertsona hauetako batzuek Nafarroako Kutxako zuzendaritza-organismoetan (Kontseilu Nagusia eta Administrazio Kontseilua) egoteagatik, besteak beste Foru Parlamentuak izendatutakoekin batera, jasotzen dituzten ordainsariak, 30.000 euro urtero.

Amaitzeko, bitxia da ikustea nola dietak ordaintzen ez dituzten enpresetan (32tik 12), bilkuretako asistentzia maila nabarmen baxuagoa izan ohi den. Horrela, Nafarroaren etorkizunerako hain garrantzitsuak diren enpresa hauekiko kontseilariak duten kezka, dieten bidez jasotzen dituzten gainsoldatekin zuzenki erlazionatuta dagoela ikusten da. Hori da Nafarroarenganako maitasuna, hori!

### **5.3.- Enpresa publikoetako langileen soldatak.<sup>27</sup>**

2006an, 32 enpresa publikoetako langileen batez besteko soldata (1038 langile osotara) 31.542,34 eurokoa izan zen. Alabaina, enpresa ezberdinen arteko aldea izugarria dela nabarmendu beharra dago. Esaterako, SODENAKo batez besteko soldata 76.452.77 eurokoa den bitartean, Autoaprendizaje de Idiomas-ekoa 17.871,25 eurokoa da, alegia, lau aldiz txikiagoa. Alde galanta, gero.

Baina egin kontu batez besteko soldatei buruz ari garela eta zuzendaritza-karguen ugaritasunak (langile gutxiko enpresetan lanpostu gehienak zuzendaritzakoak dira) eta euren ordainsari handiek "batez bestekoa" nabarmen igotzen dutela kasu askotan. Bestela esanda, oinarritzko langileen soldatak (administrariak, espezialistak, teknikariak...) aipatutako "batez bestekoak" baino nabarmen txikiagoak izaten dira.

Aurretik aipatutakoa hobe ulertzeko, SODENAKo adibideari heldu eta enpresa honen lanpostuen zerrenda eta soldaten egitura arreta handiagok aztertzea beharrezkoa da.



**SODENA**  
Sociedad de Desarrollo de Navarra

Zer da SODENA?  
Nortzuk dira?  
Zer bilatzen dute?  
Zenbat kobratzen dute?

SODENAKo plantila agertzen den argazkia, non Zuzendari Nagusia den Jose M. Aracama Yoldi eta Inbertsio Zuzendaria den M. Eugenia Lecumberri Alli nabarmentzen diren.

**"Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A. (SODENA)" uneotan 13 langile dituen enpresa publikoa da. Hauetatik 5 zuzendariak dira, 3 kudeatzaileak eta gainerako 5ak langile tekniko eta administratiboak.** Bada, enpresa honen **batez besteko soldata** urteko **76.452,77 eurokoa izaki (12.740.000 pezeta)**, eta goi karguek langileen bikoitza jasotzen dutela suposatzen badugu (seguru aldea handiagoa dela), zuzendari eta kudeatzaileen soldata urteko 90.000 euro ingurukoa eta gainontzeko langileena berriz 45.000 ingurukoa dela ondorioztatu dezakegu.

2006an bertan Nafarroako Parlamentuak Gobernuko lehendakariarentzat eta bere kontseilariarentzat onartutako soldatekin alderatuz gero (75.436,76 eta 70.203,56 euro hurrenez hurren), zera baieztatu dezakegu: ikuspuntu ekonomiko soiletik, askoz probetxagarriagoa da SODENako zuzendari izatea, Nafarroako Gobernuko lehendakaria baino (halere, ez dezagun ahaztu Urralbururen Gobernuak erakutsitakoa, alegia, soldata "ofizialak" maiz ez datozela bat soldata "errealekin").

Azpimarratzekoa da, halaber, **enpresa horretan bertan egondako soldata igoerak, %27koa 2006an eta %47koa azken bost urteak kontutan hartzen baldin baditugu** (2001ean urteko batez bestekoa 51.573,35 eurokoa zen). Oraindik ere ikaragarriagoa da "Navarra de Financiación y Control" NAFINCOren kasua, 2006an %45a igo baitira soldatak bertan. Ikus daitekeen bezala, soldata igoera horiek guztiak urte hauetako KPIarenak baino askoz handiagoak dira. Eta kontuan hartu behar da zuzendaritza-pertsonalaren soldatak pertsonal tekniko eta administratiboarenak baino gehiago igo ohi direla; azken hauen soldaten igoerak KPI ofizialetik gertuago egoten dira.

SODENAREN kasuan, gainera, begi bistakoa da dauden soldatak eta hauen igoerak ez daudela zuzendaritza taldearen kudeaketak lortu dituen mozkinen lotuta. Izan ere, enpresaren 2006ko urteko balantzetik ateratako datuen arabera, enpresa partekatuetako tituluen balore galerari, kaudimenik ezarengatik kobratu ez diren kredituak gehitzen badizkiogu, ateratzen den galera kopurua, osotara, 24.207.082 eurokoa da (hots, inbertitutakoaren %46,77).

SODENAREN ondoren, enpresa publikoen 2006ko soldaten rankinga honako hau da: POSUSA, 57.357,88 euro; Navarra de Financiación, 55.006,93 euro; Baluarte, 50.744,47; NGA, 48.926 euro; etab...

Azkenik, orain arte aipatutako guztia gaingitzen duen soldata pare bati egin behar diogu erreferentzia: POSUSAko lehendakari José María Ruiz Oyagak 160.000 euro jasotzen ditu urtero (26,5 miloi pezeta baino gehiago) eta Juan Santafé Rodrigok, UPNren Gobernuaren Ogasuneko zuzendari nagusia izandakoak, antzeko kopurua jasotzen du Navarra de Gestión, S.A. (NGA, SA) enpresaren eskutik.

Navarra de Financiación  
y Control NAFINCO bezalako  
enpresa publiko batek igo al  
ditzake  
soldatak

**45%?**

El sueldazo



J. Santafé Rodrigo  
UPNren Gobernuaren  
Ogasuneko Zuzendari  
Orokorra ohia



## 6.- BESTELAKO PREBENDAK: KARGUA UTZI ONDOKO ORDAINSARIEK ETA BESTELAKO SOLDATA-OSAGARRIEK JOERA PRIBATIZATZAILEAK INDARTZEN DITUZTE

Pasa den 2007an, Nafarroako Parlamentuak apirilaren 4ko 10/2007 Foru Legea onartu zuen, Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioako goi-kargudunen bateraezintasun-araubidea aldatu zuena.

**Aipatutako Foru Legeak "goi-kargua" kontzeptua nabarmen zabaldu zuen (lehenengo artikulua)**, honako hauek barne bilduz: zuzendari nagusiak, zuzendari exekutiboak eta kontseilari delegatuak; enpresa publikoetan, aurrekoen pareko diren karguak; eta administrazioaren nahiz bere organismo publikoen fundazio publikoetako zuzendari kudeatzaileak, administratzaileak eta parekoak. Legea onartu aurretik azken bi multzoak ez ziren goi-kargutzat jotzen.

Erabaki horren ondorioz, aipatutako pertsona guztiek (ehun lagun inguruk) orain arte Gobernuko lehendakari eta kontseilarietara baino ez zegozkien kargua utzi ondoko ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute. Hau da, **"ordainsari" hauei esker (3. artikulua bis), zuzendari nagusientzat finkatutako urteko kopuruaren (58.842 euro) %80 bi urtez kobratzea bermatuko zaie.**

Foru Legeak soldata-osagarri mamitsuak banatzen dizkie, halaber, goi-kargu hauetako bat lortzeko mauka izan duten **Nafarroako Gobernuko funtzionario** guztiak. Era honetan, horren ardua noblerako izendatua izan eta bi urtez jarraian edo hiru urtez aldizka horretan aritu den funtzionarioak **bere soldataren %25eko osagarri pertsonala jasotzeko eskubidea izango du**, bizitza osorako, kargu hori amaitu eta bere lanpostura bueltatzerakoan. Are eta larriagoa dena, Foru Legeak ezarri duenez aipatu "eskubidea" 1983.eko urtarrilaren 1etik horrelako postu bat bete duen orori aplikatuko zaio, nahiz eta osagarria 2007.eko urtarrilaren 1etik baino ez den kobratuko.

Ikus daitekeenez, funtzionario batek (noski, goi-karguak baino ez dituzte izendatzen horrelako lanetarako) zerbitzu-eginkizun baten bidez enpresa publikoetako batean goi-postu batean aritzeko izan dezakeen interesa handia da, handia denez.

# 80%

ordainsaria goi kargua  
utzi ondoren!!  
(apirilaren 4ko 10/2007 Lege Forala)

Inongo alderditako eta inongo parlamentariren  
aurkako botorik ez...

Izan ere, bere izendapenak irauten duen bitartean, ordura artekoa baino askoz soldata handiagoa jasoko du (enpresa publikoak finkatutako soldata, funtzionarioen tzako lan-hitzarmenei nahiz urteroko aurrekontuei lotuta ez dagoena) eta gainera, kargu gabetua denean bere soldataren %25eko osagarri gozo hori gozatuko du bizitza osorako. Gobernu aldaketak izan ala ez, berari bost axola, bere lan sufrituaren ordaina bermatuta izango baitu jubilatuta arte.

Gauzak horrela, beste une batean aipatutako ebidentzia ondorioztatu eta indartzen da: **edozein enpresa publiko eta fundazioen sorrera sustatu eta, azken batean, administrazioak egiten dituen zerbitzu publikoen zati handi bat zuzenean edo zeharka privatizatzeko interes objektibo bat badago funtzionarioen goi-mailetan.** Izan ere, uneko Gobernuaren mesedea lortuz gero, bere diru-sarrerak nabarmen hobetzeko aukera izango du, enpresa publikoen administrazio-kontseilu eta zuzendaritzetako ehunka postu horietako bat eskuratuz. Noski, kasta burokratiko honek, bere osotasunean hartuta, ez du inongo interesik horren gustura aritzen den eta hainbeste prebenda ekonomiko eta boterezkoak ematen dizkion egoera arriskuan jar lezakeen Administrazioaren aldaketa sakonik eman dadin.

**Era honetan, Administrazioa eta bere inguruak (enpresa publikoak, parte hartze publikodun enpresa pribatuak, fundazioak...) gobernuan dagoen alderdiaren gerra-harrapakin bilakatu dira, bere militante eta kideen artean banatu dezakeen pastel.** Honek guztiak, gainera, kontratazioak eta lanak kontrol instituzionaletik urrunago dagoen egitura baten bidekeria ematen du (enpresa publikoak, fundazioak e.a.), modu honetan edozein ustelkeria eta prebarrikaziori objektiboki atea irekiz.

# Esaldia:



Garcia Adanero,  
UPNko  
parlamentaria.

Nafarroako Legebiltzarra: 2007ko martxoaren 29ko 83. Bilkura.

“Con este proyecto de ley se hace justicia a la actividad de aquellas personas que tienen que estar dos años sin poder ejercer una profesión y no tienen derecho al desempleo, y por lo tanto, hay que darles algún tipo de compensación económica para que, lógicamente, el cargo pueda ser atractivo en el futuro.”

## **7.- FORU ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMA DEMOKRATIKOAREN ALDE.**

Administrazioa, geroz eta gehiago, bere inguruan dauden interes pribatuen menpe dago (hezkuntzakoak, osasunaren arlokoak, OPUS, zerbitzu-enpresak, multinazionalak,...). Enpresa hauen guztien helburua honako hau da: bere interesen arabera aurrekontu-politika lortzeaz gain, zeharka nahiz zuzenean funts publikoen erabilpenaz baliatzea.

**Alderdi politikoak**, beren aldetik, **euren jarduera instituzionala saritzeko euren buruari onartzen dizkioten soldata eta dirulaguntzen menpe daude, gero eta gehiago (gaur egun, kasik osoki)**. Era honetan, 2008an zehar, erabateko dedikazioa duten parlamentariei (dauden 50etik 35) dagokien urteko 52.020 euroko soldataz gain, talde parlamentario bakoitzak funtzionamendu eta antolaketarako ordainsari mamitsuak jasoko ditu: UPNk, 975.588 euro/urteko; Na-Bai eta PSNk, 586.956 euro/urteko eta CDN eta IUk, 198.324 euro/urteko.

Aurrekoari zera gehitu behar zaio, boterean dauden alderdiek deskribatu ditugun bideak bezalakoetatik jasotzen dituzten kopuruak: enpresa publikoetan parte hartzea, pribatizatutako lan eta zerbitzuen esleipena, eurek sortu eta kontrolatzen dituzten fundazioen bidez diru laguntza publikoen lorpena, e.a... Gogora dezagun, adibide moduan, bere ordezkarien bidez Nafarroako Kutxako Kontseilu Orokorrean parte hartzeak 30.000 euro/urteko dakarkiola CDN, PSN eta IUri, eta 60.000 UPNri.

Era honetan, Foru Administrazioa, demokraziarekin zerikusi gutxi duten oinarrien gainean eraikita dago. Gaur arte Foru Gobernura heltzea lortu duten alderdi politikoek (**PSN, UPN, CDN,...**) **bere akolito eta gertukoaren artean banatzeko gerra-harrapakintzat hartzen jarraitu dute, eta ez garbitu, berritu, profesionalizatu eta demokratizatu beharreko instituziotzat**. "Hiruko aurrerakoiaren" (CDN, PSN eta EA) epealdi laburrek ez zuten erakutsi norabide ezberdin baterako gutxieneko aldaketarik. Orokorrean, gobernu aldaketa bakoitzaren ostean, "kendu zaitez zu ni jar nadin" bat atzematen da, eta horrek Administrazioaren osagai burokratiko indartu, bere "elefante hilerriak" zabaltu eta alferrikako gastuak etengabe igotzea besterik ez du egiten.

**Azken foru hauteskundearen ondoren PSN, Nafarroa Bai eta IUren artean negoziatutako "aldaketarako" azken alternatibari dagokionez, bertan ez zen egungo egoera eraldatu eta kontrako norabideari ekiteko inolako neurririk mahai gaineratu**. Berritua ere, ematen zuen kontua gehiago zela egun dauden prebendak banaketa berria egin eta pertsona batzuk beste batzuegatik ordezkatzeko, aipatzen ari garen egitura burokratikoaren sakoneko erreforma -pertsonala eta politikoa- egitea baino.

Administrazioaren kontzepzio utilitarista hau bere funtzionamenduan bertan eragin kaltegarriak izaten ari da. Lehenik eta behin, **prestakuntza handiagoko pertsonalaren (A eta B mailak, batez ere) portzentaia gero eta handiagoaren helburu profesionala gora eta gora egitea bilakatzen ari da**. Gero eta gehiago, antzinatasun eta maila jakin bat duen eta burutzaren bat lortu ez duen funtzionariak profesionalki porrot egin duela iruditzen zaie, bai berari, baita bere nagusiei ere. Helburu bakarra eskala hierarkikoan gora egitea da eta ez profesionalki garatzea.

Bigarrenik, **maila gorenetan dagoen entxufismo eta adiskidekeriak funtzionario-egitura osoan zabalduz doaz apurka-apurka, bazter orotara ailegatu arte.** Araututako mugikortasun eta igoera prozeduren gainetik, pasillismoa, arbitrarioki egindako izendapenen aurrean isiltzea eta, azken batean, "besteek egiten badute, zergatik nik ez" logika onartzea nagusitu egin dira. Horrekin batera, talde-lana eta plangintza kolektiboa desagertuz doa, sekretismoaren eta taldetxoaren mesedetan.

Hirugarrenik, **zuzeneko pribatizazioaren (enpresa pribatuei esleipenak) eta zeharkakoaren (enpresa publikoen bidez) logika zerbitzu publikoaren irudia hondatzen ari da.** Pribatuaren eraginkortasuna goستن da, nahiz eta politika hori, batere susmagarria ez den Comptos Ganberak adierazi duenez, zerbitzuen kosteen areagotzea eragiten eta euren kalitatea kaltetzen ari den. Hau guztia, erraz uler litekeen bezala, enpresa horietan dauden lan baldintza kaskarren eta prekarietate maila altuen ondorio zuzena da.

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren zerbitzu informatikoen azken urteetako eraispenak agerian utzi duenez (IECISA, TRACASA, NGASA, PINSL,..), **aurreko guztiak funtzionari kolektibo garrantzitsuen balio murriztapen eta baztertzea eragin du; esate baterako, profesionaltasun maila eta esperientzia handia izan arren, Nafarroako Gobernuko pertsonal informatiko propioa sakrifikatu dute,** euren antzinako nagusiak haztea eta enpresa pribatuei kontratazio administratiboaren diru-kutxak irekitzea beste xederik ez duten **privatizazioen mesedetan.**

Gauzak horrela, ezinbestekoa da honako neurri hauek bideratuko dituen politika sustatzea: sektore publikoaren defentsa, bertako langileentzako duintze profesionala, lan harreman garden eta demokratikoak, adiskidekeria eta entxufismoaren jazarpena eta, azken buru, Administrazioaren zerbitzuak herritargoaren zerbitzura jartzea. Norabide horretan, LABetik guztiz bestelako oinarrien gainean eraikitako **FORU ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMA DEMOKRATIKOA** bultzatzeko beharra planteatzen dugu.

Lan honen hasieran aipatu bezala, LABek eragile sindikal, sozial, akademiko eta abarren arteko eztabaida garrantzitsua garatzeko asmoa dauka hurrengo hilabeteetan, ikasturte honetan zehar **Foru Administrazioaren "Liburu Gorria"** litzatekeena aurkezteko asmoz. Aipatu planteamendu orokorra **kalitatezko zerbitzu publikoaren sustapenean eta funtzio publikoaren duintze, profesionalizatzeko eta demokratizatzeko irizpideetan oinarrituta egongo da.** Horrekin batera, lan honetan aipatu diren aferetako askoren inguruko neurri zehatzen multzoa jorratu nahi dugu: ordain-sariak eta soldata-eskalak, plantilla organikoak, behin-behinekotasuna, burutzak, talde-lana eta kudeaketa demokratikoa, herritarren eskubideak, genero berdintasuna eta diskriminazio eza, enpresa publikoaren funtzioa, bateraezintasun-araubidea, pribatizazioak, euskararen normalizazioa e.a.

# oharrak

## dosier ustelkeria

- <sup>1</sup> Lan honek oinarri dituen datuek izaera ofiziala dute (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Comptos Ganberako Txostenak...) edo Nafarroako Gobernuko Langileen Batzordeek egindako lanetatik eta gure sindikatuak, LABek, egindako ikerketatik datoz.
- <sup>2</sup> "Análisis de la precariedad y estructura burocrática y sexista -Jefaturas- de la Administración del Gobierno de Navarra", 2007ko udazkenean argitaratua, Nafarroako Gobernuko Administrazioako plantila organiko ofizialeko datuetan oinarritua (NAO 85. zbkia., uztailearen 11koa).
- <sup>3</sup> Aipaturiko azterketan aipatzen den moduan, azterketatik baztertu dira zenbait lanpostu: Osasunbidea elkarte autonomokoak, Hezkuntza Departamentuko ikastetxeetakoak eta, azkenik, Suhiltzaile eta Foruzainak. Arrazoia, zerbitzu hauetako (osasun etxeak, ikastetxeak, polizia eta suhiltzaileak) egitura hierarkikoa Nafarroako Gobernuko Administrazio osorako ezarritakoak ez diren beste irizpide batzuetan oinarritzen direla: Bulego burutzak eta Atal burutzak; Zerbitzu Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Nagusiak.
- <sup>4</sup> 1995eko otsailaren 4ko txostena. "Gestión de Personal de la Administración Foral de Navarra".
- <sup>5</sup> 2007ko udazkeneko argitarapena: "Nafarroako Gobernuko Administrazioaren prekarietatearen eta egitura burokratiko eta sexistaren -Burutzak- azterketa."
- <sup>6</sup> 1996-2005 tartean Administrazioaren plantilaren eboluzioari buruzko txostena, 2008. urtean aurkeztua.
- <sup>7</sup> 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30koa, Funtzio Publikoaren Testu Bategina aprobaten duena.
- <sup>8</sup> 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30koa, Funtzio Publikoaren Testu Bategina aprobaten duena; Hirugarren Xedapen Gehigarria.
- <sup>9</sup> Administrazio Guneko Langileen Batzordeak, 2008ko maiatzean deialdi ezberdinetara ez agertzea erabaki zuen, hauetan behar zen gutxienezko objektibitate eta inpartzialtasuna ematen ez zela ulertzen zuelako.
- <sup>10</sup> "La temporalidad en el empleo en el sector público", Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (EGK) egina 2004ko azken hiruhilekoari dagozkion datuekin.
- <sup>11</sup> "Informe sobre la situación y evolución de la Administración foral y sus empresas públicas en el período 1996-2005".
- <sup>12</sup> Atal honetan azaltzen den gehienak "Privatizaciones en el Gobierno de Navarra", Dosierrarekin harremana dauka. Hau modu bateratuan argitaratu zuten Nafarroako Gobernuko Administrazio Nukleo eta Gizarte Ongizateko Langileen Batzordeek 2004ko apirilean eta, aldi berean, AFAPNA, ASIT, CCOO, ELA, LAB, SAE eta UGT sindikatuak sinatu zuten.
- <sup>13</sup> "Dossier: Privatizaciones en el Gobierno de Navarra", 2004koa, Nafarroako Gobernuaren Administrazio Guneko eta Gizarte Ongizateko Langileen Batzordeek egina (AFAPNA, ASIT, CCOO, ELA, LAB, SAE y UGT).
- <sup>14</sup> Soziologian eta Zientzi Politikoetan Lizentziadunen eta Doktoreen Elkargoak emandako "Sociedad y Valores Humanos 2007" saria jasotzean Gabriel Hualde Urralburuk, Gizarte Ongizate Departamentuko teknikari eta goi kargu ohiak eman zuen diskurtsoa.

- 15 *ASPACE eta bere Fundazioaren kasua da, non bere zuzendariak, Fernanda Esparzak, Pedro Pegenauteren –Nafarroan euskararen dinamitari nagusia eta UPNko kide ezagunaren- emazteak, 2002. urtean 84.000 euro kobratzen zituen.*
- 16 *Miguel Laparrak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak, "La construcción del empleo precario" liburuaren egileak egindako ikerketa.*
- 17 *Nafarroako Gobernuak egindako Enpresa Publikoen Kontuen Zerrendatik aterata, 2006.urtea: Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, S.A.; Autopistas de Navarra, S.A. (AUDENASA); Balaarte, Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A.; Centro Europeo de Empresas e Innovación, S.A. (CEIN); Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A.; Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI), Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.; ITG Agrícola, SA; ITG Ganadero, S.A.; Natural Climate Systems, S.A.; Navarra de Financiación y Control (NAFINCO), Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A. (NAMAINSA); Navarra de Servicios, S.A. (NASERSA); Navarra de Suelo Industrial, S.A. (NASUINSA); Navarra de Suelo Residencial, S.A. (NASURSA); Navarra de Gestión para la Administración (NGASA); Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA); Navarra de Verificaciones Legales, S.A. (NAVELSA); Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A. (OPNATEL), Producción Informática de Navarra, S.L. (PINSL), Planetario de Navarra, S.A.; Potasas de Subiza, S.A. (POSUSA); Riegos del Canal de Navarra, S.A.; Riegos de Navarra, S.A.; Sal Doméstica (SALDOSA); Salinas de Navarra; Sociedad de Desarrollo de Navarra S.A. (SODENA); Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A. (SPRIN); Star Up Capital Navarra, S.A.; Trabajos Catastrales S.A. (TRACASA) eta Viviendas de Navarra, S.A. (VINSA).*
- 18 *2006. urteko Kontu Orokorrei buruzko txostena, non aditzera ematen den badaudela elkarte publikoak "oso helburu antzekoekin eta kasu batzuetan kointziditzen dutenak", horregatik iradokitzen du komenigarria dela "enpresa publikoak murriztea edo biltzea".*
- 19 *2000, 2001, 2002 eta 2003. urteetan SODENAK egindako aholkularitza eta kontsultoria kontratuei buruzko IU-ren eskaera eta PSNren eskaera elkarte publikoetako kudeatzaileen ordainsariei buruz informatuak izateko..*
- 20 *"Empresas públicas de Navarra: selección de personal, contratos, encomiendas e ingresos por transferencias, ejercicio 2004". Comptos Ganbararen txostena 2007/06.*
- 21 *2007.ko martxoaren 7an, Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordearen aurrean azaltzean.*
- 22 *Aipatutako "Pribatizazioak Nafarroako Gobernuan" dosierra.*
- 23 *"Nafarroako Gobernuko Enpresa Publikoetako (EP) Administrazio Kontseiluak, kideak eta kargu horiei esker lortutako saria" dosierra. 2005 urtea.*
- 24 *2006ko Kontu Orokorren gaineko Comptos Ganberaren txostena.*
- 25 *Nafarroako Gobernuak emandako datuak, 2006ko urteari eta enpresa hauei dagozkien kontu publikoei dagozkienak.*
- 26 *19/1998, azaroaren 4ko, Bateriaezintasun Lege Foralak, 5-1,b) artikuluan horietako bi kontseilu baino gehiagotara joateagatik ezin izanen dela dietarik jaso ezartzen du.*
- 27 *2006. urtean enpresa hauetako langileek jasotako soldatak, kenduta Segurtasun Sozialerako kotizazioak. Datuak Nafarroako Gobernuak urteko kontuei buruz argitaratu dokumentazio ofizialari dakozkio.*

NAFARROAKO GOBERNUKO ADMINISTRAZIOAN  
USTELKERIA ZURIAREN  
LIBURU BELTZA

dosier  
-----  
ustelkeria

**¡POR LA REFORMA DEMOCRÁTICA  
DE LA ADMINISTRACIÓN FORAL!**

**LAB**